

Bojan Brezigar, Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoaren presidentea**“Onartezina da Nafarroak atzera egitea euskara babesteari dagokionean”**

Zaldi Ero

Urtarrilaren 19 eta 20an Euskal Herrian izan genuen Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoaren presidentea Bojan Brezigar. Bisitak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikari buruz Bulegoak egin duen txostena aurkeztea du helburu. Brezigarren hitzetan, “onartezina” da nafar gobernuaren hizkuntza politika.

Nafarroako Gobernuaren egiten ari den hizkuntza politika dela-eta etorri zara gurerara...

Bai, hori da. 2000ko Foru Dekretuaren ondoren, gure Bulegoak Espainiar estatuan duen batzordeak –euskararen ordezkariaren bitartez–, parte har genezan eskatu zigun, Nafarroako hizkuntza politika Europako foroetan aztertzeko asmoz. Eskariaren ondorioz, Bruselan izan genuen Pegenaute jauna eta guk ere, geure aldetik, Nafarroara joatea erabaki genuen, bisita ofiziala eginez. Iazko martxoaren 28an izan ginen han. Orduko hartan, zenbait agintarirekin elkarrizketatu ginen, dela Hizkuntza Politikarako zuzendariarekin, dela Parlamentuko presidentearekin, baina baita euskararen alde ari diren mugimendu eta taldeetako ordezkariarekin ere. Harrezkero, txosten bat hasi ginen lantzen, urtarrilaren 19an Iruñean aurkeztu genuena, alegia. Izan ere, horixe iruditu zitzaigun egokiena, agintariei beraiei azaltzea lehenengo. Hala ere, Foru Komunitateko gizarte-eragileen eta hedabideen aurrean ere aurkeztu nahi izan genuen txostena.

Txostenak gogor kritikatzeko du Nafarroako Gobernuaren jokoera. Gainera, zenbait gomendio ere egiten dizkio, hizkuntza politika zuzen dezan. Eta orain zer? Zer gertatuko da txostenarekin?

Europako Batzordera eta Europako Parlamentura bidaliko dugu. Esan dut lehen ere: Europara jo baino lehen nafar

agintariei aurkeztea hobetsi genuen; eta horixe egin genuen, izan ere. Bulegoak, ahal duen neurrian, gobernuarekin batera egiten du lan, izan nazio-gobernuak edo erregioetakoak, baina Nafarroari dagokionez, elkarlana ezinezkoa izan zen. Horregatik egin genuen txostena. Kasu bakana da, egia esan behar badizut...

Nola jaso zuten nafar agintariek zuen txostena?

Guk aurkeztu egin genuen, horixe besterik ez. Ika-mikarrik gabe. Txostena idatzirik dago eta zenbait iruzkin eta proposamen ere bildu ditugu bertara. Ikusiko dugu zer gertatuko den. Bestalde, kontuan hartu behar da Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruzko gaitan adituz osaturiko ordezkari taldea Nafarroan izango dela otsailaren 16 eta 17an. Ikusiko dugu, beraz.

Zuzentzen duzun Bulegoaren txostenaren arabera, kasu bakana da Nafarroa Europako Batasunaren baitan. Alegia, beste inon ez da gertatu horrelakorik, hizkuntza gutxitu baten eskubideen murrizketa...

Nafarroako kasua berezia eta bakana da horretan: giza talde elebidunaren hizkuntza eskubideak murriztu dituzte. Hala ere, esan behar da Europan bertan, zenbait hizkuntza gutxitut euskarak Nafarroan bizi duen egoera baino okerragoa bizi dutela. Greziako mazedoniarrek, adibidez, galarazita dute beraien hizkuntza jendaurrean erabiltzea. Oso larria da hori! Baina, gainerakoan, Europan ez dago beste kasurik, Nafarroakoa izan ezik, non hizkuntza gutxituaren babes maila jaitsi egin den. Kasu bakarra da, eta kezkatzekoa. Onartezina da Europak kultur eta hizkuntza aniztasunaz hitz egitea, Batasuneko hizkuntza guztiak sustatu behar direla esatea, hizkuntza guztiak duintasun berdinekoak direla adieraztea, eta, Nafarroak –hain gizarte garatu eta aurreratu batek–, atzera egitea hizkuntza gutxitua babesteari dagokionean; kasu honetan, euskara. Berriz diot: onartezina. Eta kezkatzekoa, oso.



Zaldi Ero

1

Bojan Brezigarrek
elkarrizketa

2

PERTSONAJEA:
Gerardo Bujanda

LABURRAK

- Pedro de Yrizarren heriotza

- Europako Batzordea eta hizkuntza aniztasuna

- Expolangues azoka Parisen

- Eraztunen jauna, euskaraz

3

- Inauteri garaia

- Pentsamenduaren Klasikoak bilduma

4

Ahotsaren teknologiak

INAUTERI GARAIA

Otsailaren bukaeran askotariko festa izango da Euskal Herrian

Uitziko eta Eratsungo inauteriak izan dira aurten lehenak. Urte askoan, Errege egunarekin batera ospatu zituzten inauteriak bi herriotan, nahiz eta geroago Errege ondoko lehen asteburuan ospatzen hasi.


Uitziko eta Eratsungo urtarrilaren hasieran eta, hurrena, hilaren bukaeran egin ziren Leitzañ eta Sunbillan. Ondoren, berriz, inauteri jai ezagunak Iturenen eta Zubietan. Aurten ere bi herriok bereizten dituen bost bat kilometroko bidea egin dute joaldunek, herriko gazteen moztorro izugarriak lagun.

Otsailaren 6an, sorgin gaua izan zen Ziburun, hainbat jende bildu ohi duen festa baita, eta handik zortzi egunera, inauteria iragartzen duten kauterak batean eta bestean, eta Zarpantzarren erretzea Donibane Garazin.

Eta otsailaren hondarrean, hilaren 24az gero, inauteria Euskal Herri osoan zabalduko da: Arizkun, Uztaritzen, Lesakan, Unanun, Altsasun, Kanpezun, Zalduondon, Lantzen, Saratxon... kaleko inauteria nagusituko da eta gorriak ikusiko dituzte beste urte batez herriko inauteri pertsonajek: Miel-Otxin (Lantz), Markitos (Zalduondo), Porretero (Saratxo) eta beste, urtean zehar gertatu diren gaitz guztien erantzule egin eta zigortuko dituzte.



Zaldi Ero



Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren ale berriak kalean

Noam Chomsky eta Tomas Aquinokoaren lanak, euskaraz



San Tomas Aquinokoaren eta Noam Chomskyren liburu bana argitaratu dira *Pentsamenduaren Klasikoak* bildumaren barruan. San Tomas Aquinokoak zortziehun lan baino gehiago idatzi zituen eta horietan arakatu eta 37 lan hautatu eta kaleratu dira bilduman. Izatez, bi liburukitan argitaratuko dira lanok eta lehena baino ez da kalean oraingoz, bigarrena prestatzen ari baita itzultzaile jardun duen Julen Kalzada, latinetik euskarara.

Noam Chomskyren lan euskaratuari dagokionez, hizkuntzalari eta pentsalariaren *Syntactic Structures* liburua argitaratu da klasikoaren bilduman. 1957an kaleratu zen lehenengo aldiz hizkuntzalaritza aldatu zuen liburua. Itziar Lakak ekarri digu Chomsky euskarara.



Klasikoen bildumak, bestalde, jarraian itzuliko diren liburuen izenburuak jakinarazi ditu. Tomas Aquinokoaren bigarren liburuaz gain, honakoak kaleratuko dira: John Lockeren *Gobernu zibilar buruzko bigarren tratatua*, John Stuart Millen antologia, Presokratikoen antologia, Goerg Wilhelm Friedrich Hegelen *Espirituaren fenomenologia*, Fregeren antologia, AC Crombieren *Zientziaren historia II*, Maimonidesen *Alderraiaren gidaria*, Charles S. Peirceren antologia eta Tuzidideren *Peloponesoko gerraren historia I*.

Pentsamenduaren Klasikoak bildumari buruzko informazio osoa, www.klasikoak.com helbidean.

Ahotsaren teknologiak

Ahotsaren sintesiaren eta ezagutzaren motorrak euskaraz

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak VI.3.2.c atalean honako hau finkatzen du: "Euskararen ingeniariaren industria bultzatu; aitoria- eta edizio-erremintak (ortografia- eta gramatika-zuzentzaileetan oinarrituta daudenak), itzulpenari laguntzeko tresnak (hala nola, hiztegi elektronikoa eta terminologia-baseak), gai-eremuetara eta testu-motetara egokitu-riko informatikako itzulpen-sistemak eta ahotsaren ezagutzan eta sintesian egindako aurrerapenak".

Halaber, Euskadi Informazio Gizartean Planaren helburu orokorra, euskal gizartea aro digital berrira egokitzea da, kultura-aldaketa bultzatuz eta teknologia berriak pertsona guztien zerbitzura jarriz, bizi-kalitate handiagoa eta gizarte-oreka lortzeko bai eta gure ekonomian aberastasuna sortzeko. Euskadi Sarean Programan zehar helbururen artean honako hau ezartzen da: "Ahotsaren teknologien ikerketa, garapena eta zerbitzuen ezarpena, euskarazko testuen itzulpena eta tratamendua, teknologia berrienak erabiliz".

Hortaz, arestian aipaturiko planek ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, ahotsaren teknologiei buruzko azterketa zehatza egin ondoren, ahotsaren sintesia eta ezagutzaren motorrak euskaraz egiteko jarduketa-proposamena egin zuen eta Kultura Saileko, Informatika eta Komunikazio Zuzendaritzako (DITeko), Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzako (DOMAko) eta Informatika Elkarte EJE S.A.-ko kideez osaturiko batzordeak onartu egin zuen.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak euskarazko sintesiaren motorra, hau da, testua ahots bihurtzeko teknologia, egitea (Text-To-Speech), eta ahotsaren ezagutzarena, hots, ahotsa testu bihurtzeko teknologiarera (Automatic Speech Recognition) egitea erabaki du; halaber, elkarrizketen gestio-sistema egingo du, Scansoft Belgium BVBA enpresarekin izenpetutako hitzarmenari esker. Enpresa horrek bereak diren TTS eta ASR softwareak euskarara egokituko ditu ondoren zabaltzeko eta merkaturatzeko.

Euskarazko ahotsaren sintesiaren eta ezagutzaren motorrak geroko aplikazioen oinarrian egingo dira, hala nola, telefono-zentralitak (call cen-

ters), merkataritza- eta banku-eragiketak, jendeari erantzuteko zerbitzuak, jostailuak, euskararen irakaskuntza, telefono-direktorioak, garraio publikoa etab. Halaber, proiektuaren barnean Eusko Jaurlaritzarentzako Directory Assistance baten aplikazio erakusgarria egingo da.

Aplikazio horiek garatuko dituzten enpresek %15eko beherapena izango dute Scansofthen garapen-softwarea erosten eta ondoren egin ditzaketen hobetze-lanetan.

Bestalde, euskarazko ahotsaren sintesiaren eta ezagutzaren teknologiak garatzeko proiektuak hizkuntza-baliabideak lantzea eskatzen du eta Eusko Jaurlaritzak Scansoft enpresari eskuratuko dizkio proiektua gauzatu ahal izateko. Baliabideak Euskal Herriko eragileek garatuko dituzte eta etorkizunean erabilera publikokoak izango dira. Baliabideak honako hauek dira:

- Testu-corpus elektronikoa, 25.000.000 hitz izango ditu eta ASP enpresak egingo du.
- Oinarriko lexiko fonetikoak: 60.000 sarrera baino gehiago izango ditu. Gehien erabiltzen diren hitzak, laburdura eta akronimo ohikoenak, eta datu-base akustikoetan jasotako hitzak. Hitzek transkripzio fonetikoak eta informazio gramatikala eramango dituzte. Lexikoa Eleka enpresak egingo du.
- Telefoniako datu-base akustikoa: telefonoren bidez egindako grabazioak; helburua hizkuntza-ereduak sortzeko datuak ematea da. Datu-basea Euskal Herriko Unibertsitateko Aholab taldeak egingo du.
- ASR3200rako datu-base akustikoa: bulego inguruan egindako grabazioak; helburua hizkuntza-ereduak sortzeko datuak ematea da. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateak egingo du.

Proiektuaren aurreikusitako iraupena 18 hilabetekoa da, hau da, 2005a arte eta helburua da, Europako Batasunak martxan jarri duen Europa elektronikoa, kulturaskotarikoan, nazioak gaintzen dituen European alegia, euskarak bere eremu linguistikoa izatea.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

kodea:Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

